# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

**Zk-6248**

281/1996 DEKRETUA, abenduaren 3koa, Euskal Autonomi Elkarteko Toreo Ikuskizun Orokorren Arautegia finkatzen duena.

Euskal Herriko Autonomi Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.38 atalean ezartzen denarekin bat, Euskal Autonomi Elkarteak eskumen osoa du ikuskizunen arloan, eta hain zuzen ere, abenduaren 16ko 2585/1985 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zen eskumen-arlo hori.

Eskumen hori erabiliz, Eusko Legebiltzarrak Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Iharduerak arautzen dituen Legea (azaroaren 10eko 4/1995 Legea) onartu zuen. Legearen Aldibaterako Lehenengo Xedapenean jasotzen denaren arabera, araudi bidezko garapena egiten ez den bitartean, Estatuak zezen-arloan dituen arauek indarra izango dute. Hala ere, 16.2 d) atalean ezartzen denez, zezen-ikuskizunek administrazio-baimena behar dute derrigorrez.

Bestalde, uztailaren 20ko 215/1993 Dekretuak tradiziozko zezen-ikuskizunak arautu zituen Euskal Autonomi Elkartean. Nolanahi ere, dekretu hori, erreformatzen ez den bitartean, indarrean dago, hala adierazten baitu gorago aipatutako Aldibaterako Lehenengo Xedapenak.

Toreo-ikuskizun orokorretan orain arte ezarri izan diren ordezko arauak ez dira euskal administrazioaren antolamendura egokitzen. Horregatik, zezen-jaia antolatzeko arauketaren zenbait alderdi ukitu behar dira, batetik, ikuskizuna bera garbiagoa izan dadin, bestetik, ikusleak ikuskizuna osotasunean jaso dezan, eta, azkenik, euskal tradizioa aitorturik gera dadin.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuak proposatuta, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Iharduueretarako Euskal Kontseiluak txostena burutu ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko abenduaren 3an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren

ERABAKI DUT:

I. ATALBURUA

XEDEA ETA APLIKAZIO–EREMUA

*1. atala.*– Xedea eta aplikazio eremua.

1.– Araudi honen xedea Euskal Autonomi Elkartean egiten diren toreo–ikuskizun orokorrak arautzea da, ikuskizuna bidezko eran burutzen dela ziurtatzeko, profesionalen eta ikusleen eskubideak babesteko eta

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**N°-6248**

DECRETO 281/1996, de 3 de diciembre, por el que se establece el Reglamento de Espectáculos Taurinos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con lo establecido en el artículo 10.38 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de espectáculos, transferida por Real Decreto 2585/1985, de 16 de diciembre.

En ejercicio de la citada competencia, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas, previéndose en la Disposición Transitoria Primera de la misma, la vigencia de la normativa estatal en materia taurina en tanto se procediera al desarrollo reglamentario. No obstante, en su artículo 16.2 d) establece la preceptividad de autorización administrativa de los espectáculos taurinos.

Por otra parte, los espectáculos taurinos tradicionales se encuentran regulados en la Comunidad Autónoma Vasca por Decreto 215/1993, de 20 de julio, norma ésta que la Disposición Transitoria antecitada declara vigente en tanto no se proceda a su reforma.

La normativa supletoria antecitada, de aplicación a los espectáculos taurinos generales hasta el momento presente, no se ajusta a las especificidades de la organización administrativa vasca, queriéndose incidir, asimismo, en ciertos aspectos de la regulación material de la fiesta, en el sentido de garantizar más eficazmente su pureza y, por ende, el derecho del espectador a recibir el espectáculo en su integridad, así como el reconocimiento de la tradición vasca.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, y tras deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 3 de diciembre de 1996,

DISPONGO:

CAPÍTULO I

OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– Es objeto del presente Reglamento la regulación de los espectáculos taurinos generales que se desarrollen en la Comunidad Autónoma del País Vasco, a fin de garantizar la integridad del espectáculo, salvaguardar

administrazio–antolamenduaren berezitasunak zaintzeko.

2.– Toreo–ikuskizun orokortzat araudi honen arabera gauzatzen den ikuskizuna joko da, baldin eta abere suharrek parte hartu eta bertan hil egiten badituzte.

II. ATALBURUA

TOREO–IKUSKIZUNEN MOTAK

*2. atala.–* Toreo–ikuskizun orokorren sailkapena.

Toreo–ikuskizun orokorrak honela sailkatzen dira:

a) Zezen–korridak: lau eta sei urte bitarteko abereen zezenketa, toreatzaile baten eskutik.

b) Pikatzailedun nobilladak: nobilleroek eta pikatzaileek hiru eta lau urte bitarteko abereekin egindako toreo–ikuskizuna.

c) Pikatzailerik gabeko nobilladak: nobilleroek bi eta hiru urte bitarteko abereekin egindako toreo–ikuskizuna, pikaldirik gabekoa.

d) Burtziketa: zezenak edo zezenkoak zaldiz burtzikatzea.

e) Korrida nahasiak: aurreko moten arteko nahasturak, mota bakoitzaren arau bereziak betez.

f) Zekorketak: profesionalek, zaleek edo Toreo–Eskoletako ikasleek bi urte baino gazteagoko arrak toreatzea, Erregistroko I edo II sailean izena emanda duen profesional baten zuzendaritza pean.

g) Jaialdiak: abere puntamotzak toreatzen diren ikuskizunak, adin horretako abereen toreoa erregulatzen duten arauak betez.

III. ATALBURUA

ZEZEN–PLAZAK ETA TOREO–IKUSKIZUNAK EGITEKO BESTELAKO ESPARRU EGOKIAK

*3. atala.–* Plazen sailkapena.

1.– Toreo–ikuskizunak egiteko esparruak honela sailkatzen dira:

a) Zezen–plaza finkoak.

b) Zezen–plaza ez–finkoak.

c) Zezen–plaza eramangarriak.

2.– Zezen–plazek, indarrean dauden arauekin bat, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko adinako baldintza teknikoak bildu behar dituzte; batez ere, plazen egiturak eta iharduna, aurrezaintza–neurriak, suteetatik eta gainerako arriskuetatik babesteko neurriak eta osasun nahiz garbitasun–egoera.

3.– Aurreko puntuan aipatu diren esparruetatik kanpo ez da toreo–ikuskizun orokorrik baimenduko.

los derechos de profesionales y público y atender a las especificidades de su organización administrativa.

2.– Se entiende por espectáculo taurino general todo aquel que, participando reses bravas, implique su muerte en el propio espectáculo y se encuentre regulado en el presente Reglamento.

CAPÍTULO II

TIPOS DE ESPECTÁCULOS TAURINOS

*Artículo 2.–* Clasificación de los espectáculos taurinos generales.

Los espectáculos taurinos generales se clasifican en:

a) Corridas de toros: lidia de toros de entre cuatro y seis años por matadores de toros.

b) Novilladas con picadores: lidia de novillos de entre tres y cuatro años por novilleros con picadores.

c) Novilladas sin picadores: lidia de novillos de entre dos y tres años por novilleros, sin incluir la suerte de varas.

d) Corridas de rejones: lidia de toros o novillos a caballo con rejones.

e) Corridas mixtas: espectáculo integrado por varios tipos de los anteriores, cada uno de ellos de conformidad con sus normas específicas.

f) Becerradas: lidia de machos de edad inferior a dos años por profesionales, aficionados o alumnos de Escuelas Taurinas, bajo la dirección de un profesional inscrito en las secciones I o II del Registro.

g) Festivales: espectáculos en que se lidian reses despuntadas, de conformidad con las normas que rijan la lidia de reses de la misma edad.

CAPÍTULO III

PLAZAS DE TOROS Y OTROS RECINTOS APTOS PARA LA CELEBRACIÓN DE ESPECTÁCULOS TAURINOS GENERALES

*Artículo 3.–* Clasificación de las plazas.

1.– Los lugares para la celebración de espectáculos taurinos se clasifican en:

a) plazas de toros permanentes.

b) plazas de toros no permanentes.

c) plazas de toros portátiles.

2.– Las Plazas de Toros deberán reunir las condiciones técnicas para garantizar la seguridad de personas y bienes, de conformidad con la reglamentación vigente, particularmente en cuanto a las condiciones de solidez de las estructuras y funcionamiento de las mismas, las medidas de prevención y protección contra incendios y otros riesgos colectivos, y las condiciones de salubridad e higiene.

3.– En ningún caso se autorizará la celebración de espectáculos taurinos generales en recintos distintos de los recogidos en el apartado anterior.

*4. atala.*– Zezen–plaza finkoak.

1.– Berariaz edo batez ere toreo–ikuskizunak egiteko eraiki diren plazak edo esparruak. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Hondarra: plaza finkoetako hondarra 45 eta 60 metro bitartekoa izango da.

Hesiak: 1'60 metrokoak, ohiko erabilerei begira egingo dira, materialei, egiturari eta kokatzeko moduari dagokienez, gutxienez orri bikoitzeko hiru ate eta lau ezkutaleku izango ditu, beren artean distantzia bera dutelarik.

Kailejoia: tendiduei eusteko hormaren eta hesiaren artean kailejoia egongo da, ikuskizunaren zerbitzuak igarotzeko zabalera nahikoa izango duena; era berean, ezkutaleku–kopuru nahikoa ezarriko da agintarientzat, plazako ordezkarientzat eta beren laguntzaileentzat, segurtasun–agenteentzat, erizainentzat, taldeentzat, enpresaren ordezkarientzat, abeltzainentzat eta ikuskizunean zerbitzuren bat eman behar dutenentzat.

Tendiduei eusteko hormak ez du 2'20 m baino altuera txikiagorik.

Kortak: zezen–plaza finkoek gutxienez hiru korta izango dituzte, beren arteko pasabideak dituztela, eta baita abereak ezagutu, bereizi eta bakaratzeko behar diren ezkutalekuak, korridoreak eta segurtasun–neurriak ere. Kortetariko batek, behintzat, pasabidea izango du baketara joateko, eta beste batek pasabidea abereak garraiatzeko zapaldara eramateko. Lehenengo eta bigarren mailako plazetan, halaber, pisatzeko baskula egongo da, baita sendaketa–kaiola ere, behar bezala egokiturik, hor bazterturiko abereak sastakatu eta behar diren ebakuntzak edo sendaketak egingo zaizkie.

Bakak edo zezen–tokiak: gutxienez, zortzi baka izango dituzte. Baken arteko pasabideak egongo dira, abereak segurtasunez pasarazteko.

Zaldi–patioa: horretarako bakarrik erabiliko da, eta bai kalera, bai hondarrera zuzeneko sarbidea izango du. Zaldientzako ukuilu nahikoak ere egongo dira, garbitasun– eta osasun–egoera onean, eta baita ikuskizuna prestatzeko behar diren tramankulu eta tresnak gorde eta zaintzeko tokiak ere.

Larrutze–gela: pasabide batez loturik egongo da narras–patioarekin. Larrutze–gelan ura eta estoldak egongo dira, eta baita albaitaritza–saila ere, araudi honetan ezartzen diren azterketak eta lagin–hartzeak egiteko behar diren baliabidez eta tresnez horniturik.

*5. atala.*– Plaza ez–finkoak.

Toreo–ikuskizunak egiteko berebizikoak ez badira ere, horretarako egokitu badira eta behin edo aldi baterako baimena jaso badute, plaza ez–finkotzat joko dira. Edonola ere, toreo–ikuskizuna egiteko behar diren segurtasun eta osasun–baldintzak bete beharko dira nahitaez; ziurtatu behar da, halaber, esparruan ez dela

*Artículo 4.*– Permanentes.

1.– Edificios o recintos específica o preferentemente construidos para la celebración de espectáculos taurinos, que deberán reunir las siguientes características:

Ruedo: El ruedo de las plazas permanentes tendrá un diámetro no superior a 60 ni inferior a 45 metros.

Barreras: Las barreras, con una altura de 1,60 metros, se ajustarán en sus materiales, estructura y disposición a los usos tradicionales, contarán con un mínimo de tres puertas de hoja doble y con cuatro burladeros equidistantes entre sí.

Callejón: Entre la barrera y el muro de sustentación de los tendidos existirá un callejón de anchura suficiente para los servicios propios del espectáculo, debiendo instalarse burladeros en número suficiente para ser ocupados por autoridades y delegados de plaza y sus auxiliares, agentes de seguridad ciudadana, personal sanitario, cuadrillas, representantes de la empresa y de los ganaderos y otras personas que deban prestar servicio durante el espectáculo.

El muro de sustentación de los tendidos tendrá una altura no inferior a 2,20 metros.

Corrales: Las plazas de toros permanentes habrán de contar con un mínimo de tres corrales, comunicados entre sí y dotados de burladeros, pasillos y medidas de seguridad adecuadas para realizar las operaciones necesarias para el reconocimiento, apartado y enchiqueramiento de las reses. Uno, al menos, de los corrales estará comunicado con los chiqueros y otro con la plataforma de embarque y desembarque de las reses. Existirá, asimismo, una báscula de pesaje en las plazas de primera y segunda categoría, así como un mueco o cajón de curas debidamente acondicionado para apuntillar las reses que fueran devueltas y practicar las operaciones o curas necesarias.

Chiqueros: Dispondrán, igualmente, de un mínimo de ocho chiqueros comunicados entre sí y construidos de manera que facilite la maniobra con las reses en las debidas condiciones de seguridad.

Patio de caballos: Existirá también un patio de caballos, dedicado a este exclusivo fin, con entrada directa a la vía pública y comunicación, igualmente directa, con el ruedo, así como un número suficiente de cuadras de caballos dotadas de las condiciones higiénico-sanitarias adecuadas y dependencias para la guardia y custodia de los útiles y enseres necesarios para el espectáculo.

Desolladero: También existirá un patio de arrastre que comunicará con el desolladero higiénico, dotado de agua corriente y desagües, así como un departamento veterinario equipado de los medios e instrumentos precisos para la realización, en su caso, de los reconocimientos y la toma de muestras que sean necesarias conforme a lo previsto en el presente Reglamento.

*Artículo 5.*– Plazas no permanentes.

Se consideran plazas de toros no permanentes las edificaciones o recintos que, no teniendo como fin principal la celebración de espectáculos taurinos, sean habilitados y autorizados singular o temporalmente para ellos. Deberán reunir, en todo caso, las medidas de seguridad e higiene precisas para garantizar la normal

inolako arriskurik sortu, ez pertsonentzat ez ondasunetarako, berezko duen erabileran erabiltzen hasten denean.

*6. atala.*– Zezen–plaza eramangarriak.

Plazaren egitura atalez atal desmuntatu eta eramateko modukoa bada, zezen–plaza eramangarria da. Dena dela, toreo–ikuskizunak egiteko sendotasuna izan behar du.

Edonola ere, indarrean dauden arauetan ezarritako segurtasun, osasun eta erosotasun–baldintzak bete behar dira, eta baita araudi honetan zezen–plaza finkoetarako ezarri diren eskakizunak ere, hondarrari, hesiari, ezkutalekuei eta kailejoiari dagokienez, bete behar dira. Halaber, azterketa–eskorta bat ere egon behar da gutxienez, segurtasun–neurri egokiak biltzen dituena, eta toreatzeko abere bezainbeste baka.

*7. atala.*– Osasun–baldintzak.

1.– Zezen–plaza guztiek sendategia eduki behar dute, hondarretik sarbide zuzena eta plazatik kanpora aterabide azkarra dauzkana.

2.– Sendategiak gutxienez bi gela desberdinak izango ditu, baina beren arteko pasabidea egongo da. Gela batean harrera–lekua egongo da eta, bestean, sendaketak egiteko lekua. Lokalen tamaina nahikoa izango da, bai egin beharreko iharduerak burutzeko, bai hurrengo puntuetan adierazten diren altzariak eta tresnak gordetzeko.

3.– Sendategiko gela guztiek aireztapen eta argiztapen nahikoa izango dituzte, eta edateko ur beroa zein hotza. Argindarra mozten denerako, larrialdirako argiztapen–sistema egongo da. Zoruen eta hormen estaldura iragazkaitza izango da, garbitu eta desinfektatzeko erraza. Sendategien gutxienezko hornidura honako hau izango da:

Baliabide materialak.

– Kirurgi mahaia.

– Bisturia.

– EC6 monitorea.

– Pultsiosimetroa eta oximetroa dituen arnasgailua.

– Hanaulux 2004 lanpara zentrala.

– Zurgagailua.

– 2 hartune, gas–aterabidea dutenak, 02 eta hutsa.

– Cardiolife izpitugailua.

– Laparotomia kutxa bat osorik.

– Torakotomia kutxa bat osorik.

– Kirurgia baskularreko kutxa bat.

– Larrialdirako kirurgiako kutxa bi.

– Material suntsigarri egokia eta mahai laguntzaileak.

Giza bitartekoak

– Kirurgilari nagusi 1.

– Kirurgilari laguntzaile bat.

celebración del espectáculo taurino, así como la posterior utilización del recinto para sus fines propios sin riesgo alguno para personas y bienes.

*Artículo 6.*– Plazas de toros portátiles.

Son plazas de toros portátiles las estructuras construidas con elementos desarmables y portátiles, con la solidez debida para la celebración de espectáculos taurinos.

Deberán cumplir, en todo caso, con las exigencias de seguridad, higiene y comodidad establecidas por la normativa vigente aplicable y se ajustarán a las exigencias que, en cuanto al ruedo, barrera, burladeros y callejón, se establecen en este Reglamento para las plazas de toros permanentes. Asimismo, deberán contar, al menos, con un corral de reconocimiento que reúna las dimensiones y medidas de seguridad adecuadas y tantos chiqueros como reses a lidiar.

*Artículo 7.*– Condiciones sanitarias.

1.– Todas las plazas de toros deberán disponer de una enfermería, con acceso directo desde el ruedo y con posibilidades de una evacuación rápida al exterior de la plaza.

2.– La enfermería constará, como mínimo, de dos estancias independientes y comunicadas, una de las cuales se utilizará como zona de recepción, y la otra se habilitará para la realización de intervenciones. La dimensión de los locales deberá permitir realizar con comodidad la actividad a que se destinan, así como la colocación del mobiliario y material señalado en los apartados siguientes.

3.– Todas las dependencias de la enfermería dispondrán de ventilación e iluminación suficientes y de agua corriente potable caliente y fría. Existirá un sistema de iluminación de urgencia para los casos de corte del suministro eléctrico. El revestimiento de suelos y paredes será impermeable, de material fácilmente lavable y desinfectable. La dotación mínima de las enfermerías será la siguiente:

Medios materiales

– Mesa quirúrgica.

– Bisturí.

– Monitor EC6.

– Respirador con pulsiosímetro y oxímetro

– Lámpara central Hanaulux 2004

– Aspirador.

– 2 tomas con salida de gases, O2 y vacío

– Desfibrilador cardiolife

– 1 caja de laparotomía completa

– 1 caja de toracotomía completa

– 1 caja de cirugía vascular

– 2 cajas de cirugía de urgencia

– material fungible adecuado y mesas auxiliares

Medios Humanos

– 1 cirujano jefe

– 1 cirujano ayudante de campo

– Anestesista 1.

– 2 Osasun–Laguntzaile Tekniko (ATS).

– Zaindari 1

4.– Hirugarren mailako zezen–plazek, ez–finkoek eta eramangarriek sendategia eduki beharrean, bi anbulantzia eduki ahal izango dituzte, bata medikalizatua eta bestea garraiatzekoa, beti ere horrekin egokiro ziurtatzen bada ikuskizun–mota horretarako ekipamendua, eta osasun–zentro batetik dagoen distantzia neurrizkoa bada.

*8. atala.*– Zezen–plazak mailakatzea.

1.– Zezen–plaza finkoak hiru mailatan sailkatzen dira.

Bilboko Vista Alegre plaza lehenengo mailakoa da.

Gasteizkoa bigarren mailakoa da.

Euskal Autonomi Elkarteko gainerako zezen–plaza finkoak hirugarren mailakoak dira.

2.– Eraiki berriko zezen–plaza finkoak sailkatzerakoan hainbat zertzelada hartuko da kontuan: zein udalerritan eraikiko den, bertan dagoen tradizioa, antolatu nahi den ikuskizun–kopurua eta mota edo benetan antolatzen diren ikuskizunak.

3.– Ezarritako sailkapena aldatu ahal izango da, titularrek hala eskatuz gero, aurreko puntuan bildutako irizpideak kontuan harturik, baldintza teknikoak ikusita eta Toreo–Gaien Euskal Batzorde Aholku–emalearen txostena aztertu ondoren.

*9. atala.*– Zezen–plaza finkoak urtero irekitzeko baldintzak.

1.– Urtero, edozein toreo–ikuskizun egin baino lehen, plazaren enpresa titularrak berriro irekitzeko baimena eskatu behar dio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, honako agiri hauek aurkeztuz eskariarekin batera:

a) Arkitekto edo arkitekto teknikoaren egiaztagiria, hor zehatz–mehatz adieraziko da plazak segurtasun eta sendotasun–baldintzak betetzen dituen, kasuan kasuko ikuskizuna egiteko, eta baita adierazi ere zein den plazaren gehienezko edukiera.

b) Suteen Aurkako Zerbitzuaren egiaztagiria, plazak suteetatik babesteko indarreango neurriak biltzen dituen edo, bestelako neurriak hartu badira, nahikoak diren erakusteko.

c) Lokaleko instalazio elektrikoak ikuskatu direlako egiaztagiria, teknikari–titulua daukan baimenduriko instalatzaileak egina eta dagokion Lanbide–Elkargoak zigilatua, hor ziurtatuko da instalazio elektrikoak bat datozela behe–tentsioari buruz indarrean dauden arauekin.

d) Plazako medikuen eta kirurgilarien taldeko buruaren egiaztagiria, horren bidez ziurtatuko da erizaintzan gutxienezko baldintzak betetzen direla bere zeregina aurrera ateratzeko eta araudi honetan ezarrita-

– 1 anestesista

– 2 A.T.S.

– 1 celador

4.– Las plazas de toros de tercera categoría, no permanentes y portátiles podrán suplir la enfermería con un mínimo de dos ambulancias, una de ellas medicalizada y otra de transporte siempre que garanticen el equipamiento adecuado en relación con el tipo de espectáculo y la distancia al centro sanitario mas próximo.

*Artículo 8.*– Clasificación de las plazas de toros en categorías.

1.– Las plazas de toros permanentes se clasifican en tres categorías.

Es plaza de toros de primera categoría la de Vista Alegre de Bilbao.

Es plaza de toros de segunda categoría la de Vitoria-Gasteiz.

Son plazas de toros de tercera categoría el resto de las plazas de toros permanentes existentes en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Las plazas de toros permanentes de nueva construcción se clasificarán atendiendo a criterios tales como término municipal en que se ubiquen, tradición en la localidad y número y tipo de espectáculos taurinos que se prevea realizar o efectivamente se realicen.

3.– Las clasificaciones establecidas podrán ser modificadas, a petición de los titulares respectivos, atendiendo a los criterios recogidos en el apartado anterior, vistas sus condiciones técnicas, y previo informe de la Comisión Vasca Asesora de Asuntos Taurinos.

*Artículo 9.*– Requisitos para la reapertura anual de plazas de toros permanentes.

1.– Anualmente, y con anterioridad a la celebración de cualquier espectáculo taurino, la empresa titular de la plaza deberá solicitar la autorización de reapertura ante la Dirección de Juego y Espectáculos, adjuntando la siguiente documentación:

a) Certificación de arquitecto o arquitecto técnico en la que se haga constar taxativamente que la plaza reúne las condiciones de seguridad y solidez precisas para la celebración del espectáculo de que se trate, así como su aforo máximo.

b) Certificación del Servicio de Protección contra Incendios competente de que la plaza reúne las medidas de protección contra incendios establecida en la normativa vigente o la suficiencia de las medidas alternativas adoptadas.

c) Certificado de revisión de las instalaciones eléctricas del local, realizada por instalador autorizado con título facultativo, y visada por el Colegio Profesional respectivo, acreditando que las instalaciones eléctricas se adecuan a la normativa vigente en materia de baja tensión.

d) Certificación del jefe del equipo médico-quirúrgico de la plaza de que la enfermería reúne las condiciones mínimas necesarias para el fin al que está dedicada y dotada de los elementos materiales y personales esta-

ko giza bitartekoak eta baliabide materialak badauzkala edo, bestela, aukerako neurriak badituela, hots, ikuskizun osoan zehar bi anbulantzia, bata medikalizatua eta bestea garraiatzekoa.

e) Eskudun albaitari ofizialaren egiaztagiria, non ziurtatzen den eskortak, bakak, ukuiluak eta larrutze–gelak egokiak direla, garbitasun eta osasunaren aldetik, eta 'ante' zein 'post mortem' azterketak egiteko eta lagin biologikoak hartzeko materiala badagoela.

f) Erantzukizun zibileko aseguru–poliza kontratatu dutelako ziurtagiria, zeinaren bidez plazaren, horren instalazioen eta zerbitzuen baldintza objektiboen ondoriozko arriskuak estaltzen diren, inolako frankiziarik gabe eta ondoren zehazten diren gutxienezko kapitalean, baimendutako gehienezko aforoaren arabera.

700 lagun arte 25.000.000 PTA.

1.500 lagun arte arte 40.000.000 PTA.

5.000 lagun arte arte 70.000.000 PTA.

5.000lagunetik gora 5.000 lagun edo frakzioko 10.000.000 PTAko igoera.

*10. atala.–* Plaza ez–finkoak eta eramangarriak.

1.– Zezen–plaza ez–finkoak irekitzeko baimenarekin batera esparrua gaitzeko proiektua aurkeztuko da.

2.– Plaza ez–finkoak eta eramangarriak instalatu ondoren eta ikuskizuna egin baino lehen, Udaleko zerbitzu teknikoek ikuskatuko dituzte instalazioak. Baimena araudi honen 18. atalean eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan eman ala ukatu egingo da.

## IV ATALBURUA

## TOREO–ERREGISTROAK

*11. atala.–* Motak.

Hurrengo erregistro hauek daude Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpean:

a) Enpresa antolatzaileen erregistroa.

b) Abeltzaintzako enpresen erregistroa.

c) Parte hartzen duten profesionalen erregistroa.

d) Toreo–eskolen erregistroa.

e) Zezen–plazen erregistroa.

*12. atala.–* Enpresa antolatzaileen erregistroa.

1.– Enpresa antolatzailetzat joko dira toreo–ikuskizunak antolatzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak, baldin eta hortik datozen erantzukizunak, jendearekiko edo Administrazioarekiko, berenganatzen badituzte.

2.– Toreo–ikuskizunak antolatzeko ezinbesteko baldintza izena ematea da esandako erregistroan.

3.– Izena emateko eskariarekin batera hauxe atxeki behar da:

blecidos en este Reglamento, o la suficiencia de las medidas alternativas adoptadas que, como mínimo, consistirán en la disponibilidad en exclusiva y durante todo el espectáculo de dos ambulancias, una de ellas medicalizada y otra de transporte.

e) Certificación emitida por veterinario oficial competente de que los corrales, chiqueros, cuadras y desolladeros reúnen las condiciones higiénico-sanitarias adecuadas así como de la existencia del material necesario para los reconocimientos ante y post mortem, incluida la toma de muestras biológicas.

f) Certificación de la contratación de póliza de seguro de responsabilidad civil con cobertura para los riesgos derivados de las condiciones objetivas de la plaza, sin ningún tipo de franquicia y por los siguientes capitales mínimos, en relación con el aforo máximo autorizado:

* Hasta 700 personas 25.000.000 PTA.

* Hasta 1.500 personas 40.000.000 PTA.

* Hasta 5.000 personas 70.000.000 PTA.

* Más de 5.000 personas Incremento de 10.000.000 PTA por cada 5.000 personas o fracción.

*Artículo 10.–* Plazas no permanentes y portátiles.

1.– La solicitud de autorización de apertura de plazas de toros no permanentes irá acompañada del correspondiente proyecto de habilitación del recinto.

2.– Una vez instaladas las plazas no permanentes y portátiles, y antes de la celebración del festejo, serán objeto de inspección por los servicios técnicos de los Ayuntamientos correspondientes. La autorización será otorgada o denegada en los mismos términos previstos en los artículos 18 y siguientes del presente Reglamento.

## CAPÍTULO IV

## REGISTROS TAURINOS

*Artículo 11.–* Tipos.

Dependientes de la Dirección de Juego y Espectáculos existirán los siguientes Registros:

a) Registro de empresas organizadoras.

b) Registro de empresas ganaderas.

c) Registro de profesionales actuantes

d) Registro de Escuelas Taurinas.

e) Registro de Plazas de Toros.

*Artículo 12.–* Registro de empresas organizadoras.

1.– Son empresas organizadoras de espectáculos taurinos las personas físicas y jurídicas que organicen espectáculos taurinos y asuman, ante el público o la Administración, las responsabilidades derivadas de su celebración.

2.– Será requisito imprescindible para la organización de espectáculos taurinos la inscripción en el citado Registro.

3.– La solicitud de inscripción deberá ser acompañada de:

a) Inskribatu nahi duen pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta IFK/NAN edo baliokidearen kopia.

b) Baltzuaren helbidea.

c) Ordezkaria.

4.– Enpresek datuen aldaketen berri eman behar dute derrigorrez.

*13. atala.*– Abeltzaintzako enpresen erregistroa.

1.– Autonomi Elkartean dauden abeltzaintza-etxeak dagokien Foru Aldundiko abeltzaintzako erregistroan inskribatu behar dira, hala ezartzen baita 171/1989 Dekretuan, hots, Toreo–abereen Ustiategien eta Toreo–ikuskizunen Erregistroa eta Toreo–abereen Jaiotzako Erregistroa arautzen dituen uztailaren 27ko Dekretu horretan, zeina uztailaren 21eko 210/1992 Dekretuak aldatu baitzuen.

2.– Gainerako abeltzaintzek Euskal Herrian zezenketan aritzeko frogatu beharko dute inskribaturik daudela Estatuko Administrazioaren peko abeltzaintzako enpresen erregistroetan edo tokian tokiko Autonomi Elkartekoetan.

*14. atala.*– Parte hartzen duten profesionalen erregistroa.

1.– Toreo–profesionalek ikuskizunetan parte hartu ahal izateko izena emanda egon behar dute Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpeko erregistroan.

2.– Beste Autonomi Elkarteen edo Estatuko Administrazioaren menpeko toreo–profesionalen erregistroetan egindako inskribapenak besterik gabe baliozkotuko dira.

*15. atala.*– Izena emateko baldintzak.

1.– Toreo–profesionalen erregistroan inskribatzeko, doakionak eskatu beharko du. Eskariarekin batera agiriak bidaliko dira, kasuan kasuko sailean inskribatzeko behar diren baldintzak bete direla ziurtatzen dutenak.

2.– Erregistroan norberaren datuak, izen artistikoa, lanbide–maila eta antzinatasuna, denboraldi bakoitzaren emanaldi–kopurua, aurretik izandako lanbide–mailak eta haietako bakoitzean egindako emanaldi–kopurua, lege–ordezkaria eta lanbide–karrerari dagozkion gainerako xehetasunak. Era berean, lanbidean ihardun bitartean ezarri zaizkion zehapenak ere agertuko dira, baina iraungipen–epeak igaro ahala ezabatu egingo dira.

3.– Urtero–urtero, denboraldiaren lehenengo emanaldia baino lehen, inskribapenaren datuak eguneratu behar dira.

Toreo–profesionalen Erregistroak honako sail hauek ditu:

I. saila: zezen–hiltzaileak.

II. saila: pikatzailedun zezenko–hiltzaileak.

III. saila: pikatzailerik gabeko zezenko–hiltzaileak.

a) nombre de la persona física o jurídica que pretenda inscribirse, así como copia del CIF / DNI o equivalente.

b) domicilio social.

c) representante.

4.– Las empresas están obligadas a comunicar cualquier alteración de los datos recogidos.

*Artículo 13.*– Registro de empresas ganaderas.

1.– Las ganaderías radicadas en la Comunidad Autónoma deberán inscribirse en los registros ganaderos dependientes de cada Diputación Foral, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 171/1989, de 27 de julio, por el que se regula el Registro de explotaciones ganaderas de reses de lidia y espectáculos taurinos, y el registro de nacimiento de reses de lidia, modificado por Decreto 210/1992, de 21 de julio.

2.– El resto de ganaderías deberán acreditar para su lidia en el País Vasco su inscripción en los registros de empresas ganaderas dependientes de la Administración del Estado o equivalentes de las Comunidades Autónomas donde estén radicadas.

*Artículo 14.*– Registro de profesionales actuantes.

1.– Los profesionales taurinos para poder intervenir en espectáculos deberán estar previamente inscritos en el correspondiente registro dependiente de la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

2.– Las inscripciones realizadas en el registro de profesionales taurinos dependientes de otras Comunidades Autónomas o de la Administración del Estado se validarán automáticamente.

*Artículo 15.*– Requisitos de inscripción.

1.– La inscripción en el Registro de Profesionales Taurinos se practicará previa solicitud del interesado, a la cual se acompañará la documentación que acredite el cumplimiento de las condiciones exigidas para la inscripción en la sección correspondiente.

2.– Se harán constar en el Registro los datos personales del interesado, su nombre artístico, categoría profesional y antigüedad en la misma, número de actuaciones en cada temporada, categorías profesionales ostentadas con anterioridad y número de actuaciones en ellas, representante legal y los demás datos relativos a la carrera profesional. Asimismo, se harán constar las sanciones que, en su caso, le hubieran sido impuestas en su vida profesional cuya inscripción será cancelada una vez transcurridos los plazos de prescripción.

3.– Anualmente, y antes de la primera actuación de cada temporada, los interesados habrán de actualizar los datos correspondientes a su inscripción.

El Registro de Profesionales Taurinos consta de las siguientes secciones:

Sección I: Matadores de toros.

Sección II: Matadores de novillos con picadores.

Sección III: Matadores de novillos sin picadores.

IV. saila: burtzikariak, bi mailatakoak: zezen–burtzikariak eta zezenko–burtzikariak.

V. saila: banderilariak eta pikatzaileak, bi mailatan: zezenketarako eta gainerako toreo–ikuskizun orokorretarako.

– Zezen–hiltzailearen izaera eskuratzeko eta I. Sailean izena eman ahal izateko, izangaiak pikatzaileekin egindako hogeita bost nobiladetan gutxienez parte hartu duela frogatu behar du. Alternatiba zezen–korrida batean hartuko du. Korrida horretan zezen–hiltzaile gisa dabilen zaharrenak bere lehenengo zezenaren txanda eskainiko dio izangaiari, muleta eta ezpata emanez, datorkion kategoria berria onartzen diolako erakusgarri. Ezpatari aritzen den zaharrenak bigarren postua hartuko du. Hurrengo zezen–hiltzailea, antzinatasunari dagokionez, lekukoa izango da eta hirugarren postuan arituko da. Gainerako zezenentzat toreatzeko txanda normala berreskuratuko da. Alternatiba, ohikoa den bezala, Madrilgo Las Ventas plazan berretsiko da, hiltzaile berriak lehenengo aldiz diharduenean plaza horretan.

– II. Sailean izena eman ahal izateko, izangaiak pikatzailerik gabe egin diren hamar nobiladatan parte hartu duela frogatu behar du.

– III. Sailean izena eman ahal izateko, profesional batek edo inskribaturiko abeltzain batek aurkeztu behar du izangaia, dauzkan prestakuntzaren eta ezagueren bermatzaile. Osterantzean, nahikoa izango da legez eraturiko toreo–profesionalen elkarteren batek aurkeztea. Eskatzailea, urtebetez behintzat, toreo–eskola bateko ikaslea izan denean, nahikoa izango da hori frogatzea.

– IV. Sailean bi maila egongo dira. Lehenengoa eskuratzeko eta zezenak burtzikatu ahal izateko, izangaiak zezenko–burtzikari gisa hogei emanalditan parte hartu duela frogatu behar du. Lehenengo maila zezen–korrida batean iritsiko du izangaiak, hor burtzikari gisa urte gehien daukanak bere zezena eskainiko dio berriari, alternatiba har dezan. Bigarren mailan izena eman ahal izateko eta zezenkoak burtzikatu ahal izateko, izangaiak aurreko puntuan ezarritako baldintzaren bat bildu beharko du.

– V. Sailean ere bi maila egongo dira. Lehenengo mailaren bitartez, bai zezen–korridetan bai bestelako toreo–ikuskizunetan, izena ematen den lanbidean parte hartzeko eskubidea hartzen da. Bigarren mailan izena emateak zezen–korridetan ez beste toreo–ikuskizunetan parte hartzeko eskubidea emango du, inskribaturiko lanbidean. Lehenengo maila eskuratzeko, pikatzaileak gutxienez hogei nobilada pikatuetan parte hartu duela frogatu behar du, eta haietatik hamar behintzat lehenengo eta bigarren mailako plazetan egin duela. Maila horretara iristeko, banderilariek hogei nobilada pikatuetan parte hartu dutela frogatu behar dute. Baldintza horretatik salbuesten dira I. edo II. Sailetan izena emana duten banderilariak.

Era berean eta tradizioari jarraiki, banderilariek eta pikatzaileek parte hartzen duten lehenengo

Sección IV: Rejoneadores, con dos categorías: rejoneadores de toros y rejoneadores de novillos.

Sección V: Banderilleros y picadores, con dos categorías para corridas de toros y para el resto de espectáculos taurinos generales.

– Para adquirir la categoría de matador de toros y poder inscribirse en la Sección I del Registro, habrá de acreditar el interesado su participación en un mínimo de veinticinco novilladas picadas. La adquisición de la categoría se efectuará en una corrida de toros. El matador más antiguo que alterne en la corrida cederá el turno de su primer toro al aspirante, entregándole la muleta y el estoque en señal de reconocimiento de la nueva categoría, pasando a ocupar el espada más antiguo el segundo lugar. El siguiente matador en antigüedad, si lo hubiera, ejercerá de testigo en la ceremonia de la alternativa y ocupará el tercer lugar. En los toros restantes se recuperará el turno normal de lidia. La confirmación de la alternativa se efectuará del modo tradicional.

– Para poder inscribirse en la Sección II, el interesado habrá de acreditar su intervención en diez novilladas sin picadores.

– Para poder inscribirse en la Sección III, el interesado habrá de ser presentado por un profesional o ganadero inscrito que puedan dar fe de su preparación y conocimientos. Bastará, asimismo, la presentación por alguna asociación de profesionales taurinos legalmente constituida. Cuando el solicitante haya sido alumno de una escuela taurina, durante un año al menos, bastará la mera acreditación de esta circunstancia.

– La Sección IV comprenderá dos categorías. Para acceder a la primera de ellas y poder rejonear toros, los interesados habrán de acreditar su intervención como rejoneadores de novillos en veinte espectáculos. La adquisición de la primera categoría se hará en una corrida de toros en la que el rejoneador más antiguo dará al neófito la alternativa cediéndole el toro que le corresponda. Para inscribirse en la segunda categoría y poder rejonear novillos, el interesado habrá de reunir alguno de los requisitos establecido en el apartado anterior.

– La Sección V comprenderá igualmente dos categorías, la primera de las cuales dará derecho a participar, en la condición profesional en la que se haga la inscripción, en corridas de toros, así como en cualquier otro espectáculo taurino. La inscripción en la segunda categoría dará derecho a participar en la condición correspondiente, en cualquier espectáculo taurino distinto de las corridas de toros. Para alcanzar la primera categoría, los picadores habrán de acreditar su intervención en veinte novilladas picadas, al menos, de las cuales diez, como mínimo, habrán de corresponder a plazas de segunda y primera categoría. Para acceder a esa misma categoría, los banderilleros habrán de acreditar su intervención en veinte novilladas picadas. Se exceptúan de ese requisito los banderilleros que con anterioridad hubieren estado inscritos en las Secciones I o II.

Los banderilleros y picadores podrán recibir también su alternativa con arreglo a la tradición en la primera

zezen–korridan har dezakete alternatiba. Bigarren mailan izena eman ahal izateko, banderilariek eta pikatzaileek aurreko puntuetan ezarritako baldintzaren bat bildu beharko dute.

Toreo–profesionalen erregistroa publikoa izango da. Bertan jasotzen diren datuei buruzko egiaztagiria eskatzen duen edonori emango zaio.

*16. atala.–* Toreo–Eskolen Erregistroa.

1.– Toreo–eskolak erregistro honetan inskribatu behar dira, Autonomi Elkartean ihardun ahal izateko.

2.– Izena emateko eskariarekin batera honako xehetasun hauek adierazi behar dira:

a) Eskolaren izena eta kokapena.

b) Titularren datuak.

c) Klase praktikoetarako toreo–zuzendariaren datuak.

d) Ikasleen zerrenda.

3.– Eskolak beharturik daude bildutako datuen aldaketaren berri jakinaraztera.

*17. atala.–* Zezen–plazen erregistroa (finkoak, ez–finkoak eta eramangarriak).

1.– Erregistro hori Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzan egongo da, bertan toreo–ikuskizun orokorrak antolatzen dituzten Autonomi Elkarteko zezen–plazak inskribatuko dira Administrazioaren kabuz.

2.– Erregistro horretan gutxienez datu hauek jasoko dira:

a) Plazaren izena eta kokapena.

b) Titularren datuak.

c) Plazen baldintza teknikoak.

3.– Plazen titularrak beharturik daude bildutako datuen aldaketaren berri jakinaraztera.

## V. ATALBURUA

## TOREO–IKUSKIZUN OROKORRAK BAIMENTZEKO PROZEDURA

*18. atala.–* Baimen derrigorrezkotasuna.

Toreo–ikuskizunak egin ahal izateko, aldez aurretik Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendariaren baimena lortu behar da araudi honetan ezarritako baldintzetan.

*19. atala.–* Edukia.

Ikuskizun bakarra baimendu daiteke edo, bestela, egun jakin batzutan ikuskizun bat baino gehiago egiteko asmoa badago, sail osoa ere baimendu daiteke. Halaber, berrirekiera edo berrirekiera ofiziala izan ez duten plazetan aldi berean izapidatu ahal izango dira eskari biak.

*20. atala.–* Udal agintaritzari adierazi beharra.

Arlo honi buruzko baimenak jakinarazi behar zaizkio tokian tokiko alkateari; dena dela, zezen–plaza ez–finkoak direnez, aurretiazko udal–baimena behar

corrida de toros en la que intervengan. Para inscribirse en la segunda categoría, banderilleros y picadores habrán de reunir alguno de los requisitos de presentación establecidos en los apartados anteriores.

El registro de profesionales taurinos será público. A instancia de cualquier interesado se expedirán certificaciones de los datos que consten en el mismo.

*Artículo 16.–* Registro de Escuelas Taurinas.

1.– Las escuelas taurinas deberán inscribirse en el presente Registro para poder ejercer como tales en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

2.– La solicitud de inscripción deberá ser acompañada de:

a) denominación y localización de la Escuela.

b) datos identificativos de sus titulares.

c) datos identificativos del director de lidia para clases prácticas.

d) relación de alumnos.

3.– Las escuelas están obligadas a comunicar cualquier alteración de los datos recogidos.

*Artículo 17.–* Registro de Plazas de Toros (permanentes, no permanentes y portátiles).

1.– Existirá en la Dirección de Juego y Espectáculos un Registro en el que se inscribirán, de oficio, todas las plazas de toros de la Comunidad Autónoma en que se autoricen espectáculos taurinos generales.

2.– En el Registro constará como mínimo:

a) denominación y localización de la Plaza.

b) datos identificativos de sus titulares.

c) condiciones técnicas de las Plazas.

3.– Los titulares de las plazas están obligados a comunicar cualquier alteración de los datos recogidos.

## CAPÍTULO V

## PROCEDIMIENTO PARA LA AUTORIZACIÓN DE ESPECTÁCULOS TAURINOS GENERALES

*Artículo 18.–* Preceptividad de autorización.

La celebración de espectáculos taurinos requerirá la previa autorización del Director de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior del Gobierno Vasco, en los términos previstos en este Reglamento.

*Artículo 19.–* Contenido.

La autorización mencionada podrá referirse a un espectáculo aislado o a una serie de ellos que pretendan anunciarse simultáneamente para su celebración en fechas determinadas. Asimismo, cuando se trate de plazas cuya apertura o reapertura oficial no se haya producido, podrán tramitarse simultáneamente ambas solicitudes.

*Artículo 20.–* Comunicación a la autoridad local.

Las autorizaciones en esta materia deberán ser comunicadas al alcalde de la localidad aún cuando, por tratarse de plazas de toros no permanentes o espectáculos

dute, aire zabalean antolatzen diren ikuskizun guztien antzera.

*21. atala.*– Derrigorrezko agiriteria.

Ikuskizuna egin baino hamar egun lehenago aurkeztu behar dute baimen–eskaria antolatzaileek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzan, honako xehetasun hauek adieraziz: eskatzailearen datuak, enpresa antolatzailea, ikuskizun–mota, non, noiz eta zein ordutan egingo den, eta horrekin batera ondoko agiri hauek ere:

a) Ikuskizuna iragartzen duen kartela. Hor agertuko dira toreatzeko abereen kopurua, klasea eta jatorria, zezenkarien izenak, txartel–kopurua, klasea eta prezioa, txartel–lehiatilen lekua, egunak eta orduak eta, abonurik balego, abonua hartzeko baldintzak.

b) Udal–egiaztagiria. Ikuskizuna zezen–plaza ez–finko edo eramangarrietan egiten denean, baimena eman dela dioen egiaztagiria.

c) Parte hartzen duten zezen–hiltzaileekin edo horiek ordezkatzen dituzten enpresekin egindako kontratuen kopia. Gizarte–Segurantzaren egiaztagiria, enpresa inskribaturik dagoela eta partehartzaileak altan daudela ziurtatzen dituena. Partehartzaileak toreo–eskola bateko ikasleak edo, zale hutsak izanez gero, horien zerrenda eta arriskuak estaltzeko erregimenaren frogagiria.

d) Toreo–Abereen Genealogia–Liburutik harturiko egiaztagiria, toreatuko diren abereei eta soberakoei dagokiena.

e) Aziendak erosteko kontratuaren kopia.

f) Zaldien kontrata egonez gero, horren kopia.

g) Erantzukizun zibileko aseguru–poliza kontratatu dutelako ziurtagiria, zeinaren bidez ikuskizunaren ondoriozko arriskuak estaltzen diren, Araudi honen 9. atalean ohartemandako aseguruaren kaltetan joan gabe, zehazten diren gutxienezko kapitalean, eta frankiziari dagozkion gainerako mugen arabera. Partehartzaile ez profesionalak espero diren ikuskizunetan ere, zekorketetan, esate baterako, istripuak estaltzen dituen aseguru-poliza kontratatu dutelako ziurtagiria, une bakoitzean indarrean dagoen Bidaiarien Derrigorrezko Aseguruan ezarritako gutxieneko kapitalean.

*22. atala.*– Errekerimendu eta okerrak zuzentzea.

1.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak dokumentazioa aztertu eta, akatsen bat aurkituz gero, okerrak zuzentzeko 2 asteguneko epea emango dio eskatzaileari, jakinarazpena jasotzen duenetik hasita.

2.– Dokumentazioa osatu ondoren, Joko eta Ikuskizun Zuzendariak bidezkotzat jotzen duena erabakiko du, baina erabakia arrazoitua izan behar da. Ikuskizuna egiteko eguna eta ordua baino 72 ordu lehenago berariazko erabakirik hartu ez bada, baiezkoa izan dela joko da.

3.– Ezezko erabakiaren aurka errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango zaio Herrizaingo Saileko Herrizaingo sailburuordeari. Errekurtsoa ikuskizuna hasi baino 12

desarrollados en recintos al aire libre, precisaran de una previa licencia municipal.

*Artículo 21.*– Documentación preceptiva.

Las solicitudes de autorización se presentarán por los organizadores con diez días de antelación ante la Dirección de Juego y Espectáculos haciendo constar los siguientes extremos: datos personales del solicitante, empresa organizadora, clase de espectáculo, lugar, día y hora de celebración y adjuntando:

a) Cartel anunciador del festejo en el que se indique el número, clase y procedencia de las reses a lidiar, nombre de los lidiadores, número y clase de billetes, precios de los mismos y lugar, días y horas de venta al público, así como las condiciones del abono si lo hubiere.

b) Certificación del Ayuntamiento de la localidad en la que conste la autorización de la celebración del espectáculo cuando éste se celebre en plazas de toros no permanentes o portátiles.

c) Copia de los contratos, con los matadores actuantes o empresas que los representen y certificación de la Seguridad Social en la que conste la inscripción de la empresa y el alta de los actuantes o, en el caso de que los intervinientes fueran alumnos de alguna Escuela Taurina o simples aficionados, relación de los mismos y acreditación del régimen de cobertura de riesgos.

d) Certificaciones del Libro Genealógico de la Raza Bovina de Lidia relativas a las reses a lidiar incluidas los sobreros.

e) Copia del contrato de compraventa de las reses.

f) Copia de la contrata de caballos, en su caso.

g) Certificación de la contratación de póliza de seguro de responsabilidad civil con cobertura para los riesgos derivados de la celebración del espectáculo, sin perjuicio del seguro previsto en el artículo 9 del presente Reglamento, por los mismos capitales mínimos y demás limitaciones relativas a la franquicia. Para los espectáculos en que esté prevista la participación de no profesionales, tales como las becerradas, deberá presentarse, asimismo, certificación de la contratación de póliza de seguro de accidentes con cobertura para ellos con los capitales mínimos establecidos en el Seguro Obligatorio de Viajeros, en vigor en cada momento.

*Artículo 22.*– Requerimiento y subsanación.

1.– La Dirección de Juego y Espectáculos examinará la documentación aportada y requerirá del solicitante en el plazo de 2 días hábiles contados a partir de la recepción la subsanación de las eventuales deficiencias observadas.

2.– Una vez completada la documentación, el Director de Juego y Espectáculos resolverá lo procedente, debiendo ser motivada la resolución que recaiga. Si 72 horas antes del día y hora previstos para la celebración del espectáculo no hubiera recaído resolución expresa, éste se entenderá autorizado.

3.– Contra la Resolución denegatoria cabrá interponer recurso ordinario ante el Viceconsejero de Interior del Departamento de Interior. Si el recurso fuera pre-

ordu lehenago gutxienez aurkeztuko balitz ikuskizuna hasi baino lehenago erabaki beharko da.

VI. ATALBURUA

IKUSKIZUNA BIDEZKO ERAN BURUTUKO DELAKO BERMEAK

*23. atala.–* Plazaburua.

1.– Plazaburua ikuskizuna zuzentzen duen agintaria da, eta arauturiko aldiak bidezko eran errespetatzen direla eta arlo horri buruzko xedapenak betetzen direla begiratuko du; berariazko xedapenik izan ezean, bertako usadio eta ohiturak hartuko dira aintzat. Hartara, aholkua eskatuko die adituei eta Plaza–ordezkariari.

2.– Lehenengo eta bigarren mailako plaza finkoetan egiten diren toreo–ikuskizunen burutza Joko eta Ikuskizun Zuzendariak izendaturiko pertsonari dagokio, Toreo–Gaien Euskal Batzorde Aholku–emalearen iritzia jaso ondoren. Horretarako, toreoaren gaineko ezaguerak, esperientzia eta inpartzialtasuna baloratuko dira.

3.– Hirugarren mailako plazetan, ez–finkoetan eta eramangarrietan burutza bertako alkateari edo horrek izendatzen duen zinegotziari dagokio, hori Udalak enpresa antolatzaile gisa eratzen ez badu bere burua; hala balitz, Joko eta Ikuskizun Zuzendariaren esku egongo da plazaburua izendatzea, eta batik–bat bertako zaleen artetik hautatuko du, aurreko atalean jasotako irizpideei jarraiki. Lehenengo edo bigarren mailako plazetako buru titularrak edo ordezkoak izenda daitezke.

*24. atala.–* Plazaburuaren eginkizunak.

Plazaburuak honako eginkizun hauek burutuko ditu araudi honetan ezartzen denarekin bat:
